

# Egitura



Administrazio publikoek nabarmen murriztu dituzte azpiegitura publikoetarako aurrekontuak. JAGONA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

## Iluna tunela amaitutakoan

**Tunelaren bukaeran argirik ez, eta tunelak amaitzea arazo. Deialdi publikoak nabarmen jaitsi dira aurten, eta eraikuntzaren egoera are gehiago okertu daiteke.**

Miren Garate

**E**raikuntza, seguru asko, ez da itzuliko krisi aurreko mailara. Bai enpresaburuek eta bai langileek aitortzen dute sektoreak gehiegizko pisua izan duela barne produktu gordinean, eta doitu beharra zegoela. Beherakada, ordea, izugarria ari da gertatzen. Etxebizitza datuek ederki erakusten dute egoera. 2000 eta 2007 bitartean, urtean 15.000 etxe baino gehiago eraikitzeko lanak hasi ziren Hego Euskal Herrian, diruz babestutakoak kontuan hartu gabe. Iaz, laurdena jaitsi zen kopuru hori, 3.800 ingurura. Azken urteotan, herri lanetan aurkitu dute babesera eraikuntza enpresek. Krisiak krisi, administrazio publikoek nahiko egonkor mantendu dituzte eskaintza publikoak, baina haiek ere hasi dira iturria ixten. Beraz, datozen hilabeteetan sektorearen egoera are gehiago okertuko dela diote.

### 27.000 langile gutxiago

Enplegu aldetik larri daude gauzak. 2008 amaieran, eraikuntzako 112.700 langile zeuden Hego Euskal Herrian; aurtengo urrian, 27.000 gutxiago. Enplegua galdu duten horietako bat da Rafa Lorente, Gipuzkoako eraikuntzako langabeen plataformako kidea. Haren esanetan, arrazoi nagusi batek eragin du sektorean hainbeste lanpostu galdu izana. «Obra gutxi daude, eta daudenetan ez da betetzen herrialdeko lan hitzarmena». Egunean 14 ordu arteko lanaldiak izatea eta soldata oso apalak kobratzea ohikoa dela dio, atzeritarren artean bereziki. «Nola da posible hori, hainbeste langabezia egonda?». Enpresaburuek eta langileek adostutakoa betetzea, ez du besterik eskatzen. «Lan ikuskatzaileak ez dira euren lana egiten ari. Lauzpabost egun lehenago deitu egiten dute enpresara; hori ez da ikuskatzea».

Lorente lanean ari da eraikuntzakoak ez ezik sektore guztieta-ko langabeak ere bilduko dituen plataforma bat sortzeko, beste lagun batzuekin batera. «Etorbizuna beltz ageri da; kalera ateratzea beste erremediorik ez dugu». Bizkaian aspaldidanik funtzionatzen dute langabeen batzarrek. Gainera, azken urteetan indarra hartu dute. Leioako batzarreko kidea da Javi Arraiza. «Goizero elkartzen gara. Herriko obretara eta langabeen plataformarik ez

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

# Harian

## Kutxabank → Administrazio Kontseiluaren osaketa

### 15 kideak

Mario Fernandez (BBK, EAJ)
Mikel Arieta-Araunabeña (BBK, EAJ)
Ainara Arsuaga (BBK, EAJ)
Begoña Atxalandabaso (BBK, EAJ)
Alex Bidetxea (BBK, EAJ)
Josu Ortuondo (BBK, EAJ)
Marivi Mendia (BBK, EAJ)

Jose Antonio Ruiz Garma (BBK, PP)
Luis Zayas Satrustegi (BBK, PP)
Xabier Iturbe (Kutxa, EAJ)
Jesus Mari Herrasti (Kutxa, EAJ)
Jesus Etxabe (Kutxa, EAJ)
Josu Arteaga (Kutxa, PP)
Carlos Zapatero (Vital, PSE-EE)
Fernando Raposo (Vital, PP)



Eztabaida kutxetako egituretan izan beharrean, berriro ere bulego politikoetan izan da»

ARALAR



Kutxabanke kontseiluaren profesionaltasuna bermatzen du EAJrekin egindako akordioak»

IÑAKI OIARTZABAL  
PPko idazkari nagusia

# Presaka, eta hankamotz

Hamabost kide izango ditu Kutxabankeko Administrazio Kontseiluak: EAJk hamar proposatu ditu, eta PPK, lau

Bilduk eta PSE-EEK diote Kutxabank ez dela izango «errealitatearen isla»

Miren Garate Donostia

Azken orduan, presaka eta gizar-tearen zati adierazgarri bat kanpoan utzita. Hala osatu dute Kutxabankeko Administrazio Kontseilua. Integrazioarako kontratua aldatu eta Administrazio Kontseiluko kide kopurua hogeitik hamabostera jaistea erabaki zuten atzo BBK, Kutxa eta Vitaleko administrazio kontseiluek. Kopurua jaitsita, BBK-k bederatzigun izendatzea adostu zuten, Kutxak lau eta Vitalek bi —integrazio kontratuan jartzen zuten BBK-k hamabi, Kutxak sei eta Vitalek bi—. Alderdi politikak ez dira ados jarri bakoitzak izan beharreko pisuaz, eta EAJk eta PPK euren artean egin dute partiketa: EAJk hamar kide proposatu ditu, PPK lau eta azken aukia Carlos Zapatero Vitaleko presidente eta PSE-EEren ordezkariarentzat izan da, Kutxabankeko bigarren presidenteorde izateko. Erabakia gogor kritikatu dute Bilduk eta PSE-EEK.

Asteak eman dituzte negoziatzen, baina ez dira ados jarri. EAJk eduki beharreko pisuak eragin ditu ezadostasunak. Hark Kutxabanken gaineko kontrol osoa nahi du, eta horri lotutako proposamena egin zien gainerako alderdiei. Banaketa hau planteatu zuten: hogeitik hamar kide EAJk proposatzea —tartean presidentea, kalitateko botoarekin—, lau Bilduk eta PSE-EEK eta PPK hiruna. PP ados zegoen kopuruekin, baina beste bi alder-

diak, ez. Hala, herenegun arratsaldean haiek beste proposamen bat bidali zioten EAJri. Hogeitik bederatzigun hautatzea proposatu zioten, Bilduk bost kide eta PSE-EEK eta PPK hiru izatearen truke. Proposamen berean, luze-za begira Administrazio Kontseilua 22 lagunera igotzea nahi zutela zioten. Hori egindakoan, EAJk hamar kide, Bilduk bost, PSE-EEK lau eta PPK hiru izango zituztela zioten. EAJk ez zuen onartu proposamena. Hori dela tea, PSE-EEK eta Bilduk esan zuten EAJk gehiengo osoari uko egin ezean ez zituztela izendatuko euren ordezkariak.

### Heldu, eta ezustekoa

Testuinguru horretan iritsi ziren atzoko administrazio kontseiluek. Bazirudien EAJk hamar lagun aukeratuko zituela, PPK hiru, eta gainerako zazpi eserlekuak bien artean aukeratutako zazpi profesional independente-entzat izango zirela. Alabaina, beste behin ere, ezustekoak izan dira nagusi. «Kontseilura iritsi garenean, ikusi dugu lehen puntua integrazio kontratuaren aldaketa zela», esan du Josu Ruizek, Kutxako Administrazio Kontseiluko kide eta Bilduko ordezkariak.

Ez zekiten EAJk eta PPK Administrazio Kontseiluko kide kopurua murrizteko asmoa zutenik. Integrazio kontratua era horretan aldatzea legezkoa den aztertuko dutela esan du. Ruizen hitzetan, «etsita» geratu dira ikusita-



BBKren batzarra, bat egitearen gaineko eztabaida egin zutenean. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

koarekin. Aldaketarekin galtzailenagusia Kutxa izango dela azaldu du, sei ordezkari izan beharrean lau izango dituelako. Vitalek lehen bi zituen eta orain ere bai. Kutxabankeko Administrazio Kontseiluari eskatu dio ez ezala erabaki garrantzitsurik hartu.

PSE-EEren esanetan, «Kutxabank *Batzokibank* bihurtu» nahi izan du EAJk. Jose Antonio Pastor alderdiaren Eusko Legebiltzarreko bozeramaileak azaldu du «oker politiko larria» egin dutela EAJk eta PPK. «Ezinbestekoa zen Kutxabankeko Administrazio

Kontseilua Euskadiko errealitatearen isla izatea».

Andoni Ortuzar EAJko Bizkai Buru Batzarreko lehendakariak, aldiz, adierazi du «Euskadirentzatzat egun garrantzitsua» izan zela atzokoa. Dena den, Bildu eta PSE-EE ere kontseiluan egotea

**9** «Gardentasunez» aritzeko, euren ondasunen berri eman dute PSE-EEko legebiltzarkideek

**17** Iranen eta AEBen arteko tentsioa areagotu du Hormuzko pasabidea ixteko mehatxuak

## Kutxabank → Administrazio Kontseiluaren osaketa



Hau al da EAJk, Bilduk, PSE-EEK eta PPK saldu ziguten herrialderako proiektu handia?»

MIKEL ARANA  
Ezker Batuko legebiltzarkidea



Administrazio Kontseilua edozein izanda ere, Kutxabank ondo kudeatuta egongo da»

MIGUEL ANGEL LUJUA  
Confesbaskeko presidentea

**4**

■ **Laugarren saioa.** BBK-k, Kutxak eta Vitalek bat egiteko asmoak 1990eko hamarkadakoak dira. Bat egiteko hiru saio serio izan ziren, 2005ean, 2007an eta 2008an, baina porrot egin zuten, arrazoi ekonomikoengatik baino gehiago, interes politikoengatik.

### LABek negoziazio mahaira deitu du astelehenerako

LABek Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako Kutxabaneko mahaia osatzeko eskaera egin die gainerako sindikatuei eta zuzendaritzari. Bilerara deitu du astelehenerako. Mahaia osatu ondoren, langileek kontsulta egitea proposatuko du, zer negoziazio eremu nahi duten erabaki dezaten.

nahi zutela dio. «Ezinezko gertatu da. Nahiago izan dute parte ez hartu. Ez dute ulertu nahi izan hau ez zela parlamentu edo gobernu bat osatzeko negoziazio bat. Hau banku baten administrazio kontseilu bat osatzea zela». Etorkizunari begira, irekita dagoela PSE eta Bildu Kutxabanken sartzeko bidea gaineratu du. 15 kideko kopurua Espainiako Bankuak aholkatzen du, Ortuzarren arabera.

#### Kutxen legearen zain

Osatuta dago jada erakunde berriko aginte organoa, baina ez dago argi noiz arte jardungo duen lanean. Izan ere, aurrezki kutxen lege berria jarri nahi du martxan Eusko Jaurlaritzak. Otsailen edo martxoan onartzea espero da. Lege horrek kutxen gobernu organoetan erakunde publikoek duten ordezkaritza %40ra mugatzen du, hau da, aginte organoak «profesionalizatu» egin nahi dira, nahiz eta oraingoan izan diren gorabeherak ikusita sinesgaitza dirudien.

Legea indarrean sartzean kutxek oso-osorik berritu beharko dituzte batzar orokorrak eta administrazio kontseiluak. Ondoren, gauza bera egin beharko da Kutxabaneko Administrazio Kontseiluan. Teorian lau urterako izendatu dituzte kontseiluko kideak, baina, horretarako, batzarren babesa behar dute. Legea indarrean jartzeko hauteskunde-etako emaitzak hartuko dira kontuan; hala, EAJk indarra galduko du eta Bildu guztietan sartu ahal izango da. Beraz, oso litekeena da orain izendatutako kideek ez izatea batzarren onespentik.

EAJk helegitea jarri du legearen aurka, eta arbitraje batzordearen esku dago kasua. Horrek atzeratu egin du legea indarrean jartzeko eguna, berez Kutxabank sortu aurretik onartu nahi baitzuten. Dena den, legea indarrean martxoan baino geroago sartzen bada ere, kontuan izan behar da kutxetako batzarrak berritzea tokatzen dela laster: martxoan BBKn eta Vitalen eta apirillean Kutxan. Batzarkideen erdiak berritu beharko dituzte, eta horrek ere izango du eragina Kutxabaneko Administrazio Kontseiluan.

# Astelehenetik, elkarrekin, handitzen jarraitzeko helburu argiarekin

Urte berriarekin batera jarriko da martxan Kutxabank; dena den, prozesua amaitzerako 2013a izango da

M. Garate Donostia

Martxoaren 23an iragarri zuten BBK-k, Kutxak eta Vitalek bat egite hotzerako akordioa lortu zutela, hau da, hiruren finantza negoziarioa banku batean bilduko zutela eta haren jabetza partekatuko. Helburua tamainaz haztea zelazaldu zuten, «atzean ez gertatzeko, merkatu berrietan sartzeko, bezeroei produktu eta zerbitzu hobeak eskaintzeko eta gizarte ekintza bultzatzeko». Iragarpen hura egin zutenetik forma hartuz joan da proiektua. Kutxabank izena jarri diote erakunde berriari, eta administrazio kontseiluek eta batzarrek oniritzia eman diote; beste hari batzuk lotzeko daude oraindik; lan arlokoak, kasu. Urte berriarekin batera sortuko da erakunde berria, baina jaipeguna izaki, hurrengo egunean hasiko da lanean.

#### Zertarako egin dute bat hiru kutxek?

Hiru kutxen kaudimen egoera ona izan da orain arte, eta erraz gainditu dituzte jarritako probak. Alabaina, finantza sistemaren gainean mesfidantza handia dago, eta kutxen birmoldatzeari heltea erabaki zuten Espainiako Gobernuak eta Espainiako Bankuak. Erakunde gero eta handiagoak geratzen dira merkatuan, eta tamaina handitzea izan da kutxen helburu nagusia ere. Hala, lehiakorragoak izango direla diote, eta bezeroentzat ere onuragarria izango dela hori.

#### Zer tamaina izango du Kutxabankek?

Hego Euskal Herrian eta Espai-

nian lehiatzen den zortzigarren finantza erakunde izango da. 75.729 milioi euro izango ditu aktiboetan, eta bi mila milioi eurotik gorako kapitala. 1.300 bulego edukiko ditu, eta bederatzi mila langile.

#### Baina zergatik banku, eta ez kutxa?

Xabier Iturbe Kutxako presidentek Martin Ugalde foroan azaldu zuenez, Espainiako Bankuaren araudiak horretara behartu ditu, Espainiak aurrezki kutxak desagertzeko konpromisoa hartu duela Europar. 2008an 45 kutxa zeuden Espainian eta Hego Euskal Herrian, jada hamalaura jaitzi da kopurua, eta gehienek banku egitura hartu dute.

#### Banku bihurtzeko zer ondorio izan ditzake?

Teorian pribatizaziorako bidea irekitzen du. Dena den, bat egiteari babesa emateko baldintza gisa, hainbat konpromiso lortu zituen Bilduk kutxekin. Akordioaren arabera, kutxa batek zati bat saldu nahi badu, hiru kutxetako batzarrek onartu behar dute salmenta. Berez, gainerako kutxek izango dute akzioak erosteko lehenetasuna, baina nahi ez edo ezingo balute, batzarren esku geratuko litzateke kanpoko norbaiti saltzeko aukera. Adostutakoak ez ditu guztiak konbentzitu. ELA eta Aralar, kasu, bat egitearen aurka agertu dira. ELAren esanetan, kutxek eta Bilduk hitzartutako testuak ez dituen erabat itxen pribatizaziorako ateak, «erakundeek edo administrazioek kontrakoa eskatzen badute» jarren duela testuan.

#### Nork aginduko du Kutxabanken?

BBK-k %57ko pisua izango du erakunde berrian, Kutxak %32koa eta Vitalek %11koa. Mario Fernandez izango da Kutxa-

bankeko presidentea, Xabier Iturbe presidenteordea eta Carlos Zapatero bigarren presidenteordea. Orain artean BBK-ko, Kutxako eta Vitaleko presidentek ziren, hurrenez hurren. Ignacio Sanchez Asiain izango da zuzendari nagusia eta bankuaren negoziario arduratuko da —orain artean BBK-ko zuzendari nagusia zen—. Zuzendari nagusi ondokoak Vitaleko eta Kutxako zuzendari nagusiak izango dira: Joseba Barrena eta Fernando Martinez-Jorcano. Erabakiak hartzeko gutxienez bi kutxak ados egon beharko dute, eta horietako bat BBK-k izan beharko du.

#### BBKren pisu handiak zer eragin izango du?

Erakunde bakar bat osatu eta Bilbon jartzeak zergetan zer-nolako eragina izango duen zen beste zalantzetako bat, Kutxek ekarpen handia egiten dietelako ogasunei. «Neutraltasunez» jokatzeko adostu dute, bakoitzaren pisuaren arabera, norbere herrialdean ordaintzea zergak. Gizarte ekintzaren kasuan ere hala izango da: kutxa bakoitzaren portzentajea erabiliko da. Esaterako, irabazien %57 zenbat den ikusiko da, eta kopuru horren %30 gastatuko du BBK-k gizarte ekintzan. Gizarte ekintza kutxa bakoitzak kudeatuko du, bere lurraldean.

#### Lan baldintzetan izango al da aldatetarik?

Hasiera batean, ez. Langile bakoitzak orain arte zituen baldintzekin jarraituko du, eta langile berriak BBK-ko akordioa aplikatuko zaie. 2013a amaitzerako parekatu nahi dira hiru kutxetako lan baldintzak. Orduetako dagokienez, 2012ko urritik aurrera BBK-koetara egokituz joango dira. Neurri traumatikorik ez dutela hartuko agindu dute kutxetako arduradunek. Langileak soberan izanez gero, pizgarri bidezko kaleratzeak izango dute lehenetasuna. Lan

egindako urte bakoitzeko 55 egun ordaintzeko prest agertu dira kutxak, gehienez ere 45 hilabeteko mugarekin. Erretiro aurreratuen kasuan, langileek gutxienez soldata gordinaren %75 kobratzeko konpromisoa hartu dute.

#### Zein negoziazio eremu erabiliko da?

Bilduk eta kutxek adostu zuten langileek erabakiko zutela Espainiako edo Euskal Herriko negoziario eremua aukeratzeko. Ez dago argi Hego Euskal Herriko langileen iritzia bakarrik hartuko den kontuan ala Espainiakoe- na ere bai.

#### Amaitu da bat egitea?

Ez, oraindik ez. Prozesu guztia amaitzerako 2013a izango da. Azken urratsa bateratze teknologikoa izango dela aurreikusten da.

#### Etorkizunera begira, zer?

Mario Fernandez presidentek argi eta garbi esan du hazten jarraitu nahi dutela. Bi urteko epean gaur egungo aktibo kopurua bikoizteko helburua ere jarri du Nola? Erakunde berriak eskuratu.

#### Bezeroek zer igarriko dute astelehenean?

Aldaketa handirik ez, ohiko bulegoak mantenduko dira, eta orain arteko txartel eta liburuxkekin egin ahal izango dira eragiketak. Itxura aldetik, orain arteko logoei jarraituko dute, baina Kutxabankena ere agertuko da. Praktikan, ordea, hainbat sailek dagoeneko bateratuta funtzionatu dute, altxortegiak, finantza aholkularitzak eta giza baliabideek esaterako. Abantailen artean, komisiok kendu izana da bat. Hiru kutxetako bateko bezero denak ez du ordaindu beharrik izango beste bietan eragiketarako egiteko.

(Aurreko orrialdetik dator)

## Lizitazio publikoa

dagoen herrikoetara joaten gara, lan bila. Gero eta gehiago kostatzen zaigu kontratuak lortzea». Lortzen dituzten lanpostuak bazterreko kideen artean banatzen dituzte. Talde bakoitzak bere funtzionatzeko modua du. Bilbo ezker aldean, sei hilabeteko kontratuak txandakatzen dituzte; eskuinaldean, obra kontratua amaitu arte, aste batzuetarako edo bi urtera arteko kontratua lortu ahal izango du langileak.

Leioan, irakasle eskolako campusekoa eta parke zientifikokoa dira orain martxan dauden obra nagusiak. Arraizak dio oso baldintza txarretan ari direla batean zein bestean. «Enpresek dena atzeritarrei azpikontratu die, moldaviarrei, errusiarrei eta portugesei. Egoera ankerretan ari dira lanean, 14 ordu ere bai batzuetan, eta hori eraikuntzan ezinezkoa da, leher eginda amaitzen delako».

Obra publikoen arduradun diren heinean, egoeraren berri eman diete administrazio publikoek. «Legea betetzen dutela esaten digute, baina gezurra da». Eraikuntza enpresa txikiak desagertzen ari direla dio, «eta handiei berdin zaie nor kontratatu, kostuak murrizten diren bitartean». Langileen arteko elkartzasuna ere «gero eta txikiagoa» dela uste du Arraizak. «Lehen, kontratuak lortzen ez bagenituen, obrak gelditzen genituen. Gu agertu, eta segituan geratzen ziren langileak. Orain, ez. Nagusie beldur handia zaie».

### Hitzarmenak, betetzeko


Langabeen plataformek bezala, sindikatuak ere hainbat eta hainbat aldiz salatzen dute eraikuntzako lan hitzarmenak ez direla betetzen. LABek aste honetan bertan iragarri du kanpaina bat hasiko duela. Obretan kartelak jarriko ditu, *Sarrera debekatuta lan honi ez dagokion hitzarmen orori* leloarekin. Lan itunak ez betetzea zigortu nahi du sindikatuak, eta hitzarmenean bertan biltzea ondorioak.

Arau-haustekak ohikoak direla dio Javi Amorrortuk, sindikatu eraikuntzako arduradunak. Adibide bat eman du, gutxienez bi langileri gertatutakoa: enpresak hitzarmenean ageri zen soldata ordaintzen zien, adostutakoa betetzen zuela erakusteko; gero, ordea, diru horren zati bat eskatu egiten zien enpresak, sortutako kostuengatik. Amorrortuk garbi utzi nahi izan du ez dutela ezer atzerriko langileen aurka. «Tokian tokiko lan hitzarmenak betetzea besterik ez dugu eskatzen».


ELAK, CCOO eta UGTk ere urrian agerraldi bat egin zuten Iruñean. Nafarroako Industria Sailaren arabera, Portugalgo 200

Millioi eurotan


**Araba**




**Bizkaia**



**Gipuzkoa**



**Nafarroa**




\* 2011, iraila bitarte.


ITURRIA: SEOPAN

## Eraikuntzako langileak


**Araba**




**Bizkaia**



**Gipuzkoa**




**Nafarroa**



**Hazkundera EAEn**

Urte arteko aldea



ITURRIA: INE, EUSTAT

langile ari dira herrialdeko obretan. «%50 gutxiago irabazten dute», dio Jose Mejiasek, UGTko eraikuntza arduradunak. «Langile batentzat ez da erraza kalertua izan dela onartzea eta gero obratik pasatu eta azpikontratu-

tako beste bat soldata baxuagoarekin ari dela ikustea».

### Diputazioa, arduratuta

Gipuzkoako Diputazioak bat egin du langileen aldarrikapenarekin. «Argi dugu ezinbestekoa dela lan



Euskal Y-a da Euskal Herrian martxan den azpiegitura publikorik handiena. Unecak dio enpleguan ez duela hainbesteko eraginik. A.C./ARG

hitzarmenak betetzea, eta lan egingo dugu obra publikoetan hitzarmenak bete daitezela», azaldu du Joseba Altubek, Bide Azpiegiturako zuzendariak.

Kontatu du dagoeneko hartu dituztela neurri batzuk. «Martxan diren obra publikoetako enprekin hitz egin dugu, eta langile guztiak hitzarmenaren barnean jarduteko eskatu diegu». Dioenez, hasi gabe dauden lanetan garrantzia emango diote gaiari eskaintza plazaratzeko orduan, eta «jarraipen zorrotza» egingo diete lanei. «Lan ikuskapenak egiteko eskumenik ez dugu, baina argi dugu eraginkorra izan daitekeela aldiaren jarreraren eta konpromisoen berri ematea». Oro har, enpresen jarrera ona izan dela uste du: «Orain hori nola gauzatzen den ikusi beharko da».

Gipuzkoako Bide Azpiegiturako Departamentuak murriztu egin du obra handietarako aurrekontua. Horrek enpleguan zein eragin izango duen galdetuta, Altubek erantzun du «beste bide ba-

tzuk» topatu behar direla. «Enplegua ezin da sortu herria zorpetzera eta hondamendira daramaten politiken bitartez; horrek ez du etorkizunik». Seopan Espainiako eraikuntza enpresa handien elkarteak emandako datuen arabera, Gipuzkoan ez ezik, Araban, Bizkaian eta Nafarroan ere murriztu da obren eskaintza publikoak aurten.

### Lehia, ia kostuen azpitik

Bi kontuen berri du Enrique Gonzalezek, Uneca Arabako eraikuntza patronaleko kudeatzaileak. Badaki langileak kexu direla lan hitzarmenak ez direla bete betetzen, eta, noski, badaki herri lanen kopurua gutxitu egin dela. «Hitzarmen arau-hauste horiek, existitzen badira, errotik kendu behar dira. Horretarako, kontrol neurriak behar dira, eta hori administrazio publikoek dagokie», esan du. Dena den, normalean iruditzen zaio kanpoko enpresak Euskal Herriko obretan aritzea. «Mundu lehiakor eta glo-



Ikuskatzaileek lau edo bost egun lehenago deitu egiten dute enpresara. Hori ez da ikuskatzea»

**RAFA LORENTE**  
Gipuzkoako eraikuntzako langabeen plataforma

«Langileen arteko elkartasuna gero eta txikiagoa da. Nagusiei beldur handia zaie»

**JAVI ARRAIZA**  
Leloako langabeen batzarreko kidea

«Enplegua ezin da sortu herria hondamendira daramaten politiken bitartez»

**JOSEBA ALTUBE**  
Gipuzkoako Bide Azpiegiturarako zuzendaria

«Ez da posible lanpostu gutxi sortzen duten azpiegituretan gastatzea aurrekontu guztia»

**ENRIQUE GONZALEZ**  
Arabako Uneca patronaleko kudeatzailea

«Autonomo asko administrazio publikoek berandu ordaintzen dutelako desagertu dira»

**EMI SANCHEZ**  
Euskal autonomoen elkarterko kudeatzailea

bal batean bizi gara. Guk bezala, kanpoko enpresak ere atera egin behar izaten dute, euren merkaturia txiki geratzen zaielako. Euren langileak ekartzen dituzte, bestelako kostu batzuekin eta bestelako lehiakortasun batekin. Eta obretako kontratuak lortu nahi baditugu, merkatu horretara egokitu beste aukerarik ez dugu».

Seopanen arabera, 306,1 milioi euroren eskaintza publikoak egin dira irailera bitartean Araban. Gonzalezen arabera, datua ez da zuzena. «Orain, iazko datuekin konparatuta, jaitziera %60 inguru da. Sekulako beharrekada da, eta enpleguari eta enpresen kontuei eragin die».

Azken urteetan inbertsio publiko «arrazoizko mailan» mantendu da, haren ustez. «Bat-batean gelditu da». Dioenez, ia kostuen azpitik lehiatu behar izaten dute. Gonzalezek beharrezkoa ikusten du administrazioek gastuak murriztea. «Enplegua sortzeko gaitasun handia duten inbertsioak, ordea, mantendu egin

behar dira, kontsumoa sustatzeko ere balio dutelako». Inbertitzen den euro bakoitza itzuli egiten dela adierazi du, zergekin, langabezia sariak ordaintzea saihestuta edo beste hainbat bidetatik.

Esaterako, onuragarria iruditu zaio Espainiako Gobernuak 2009an martxan jarritako 2000E plana. «Funts hori egon ez balitz, herrietako obra asko ez ziren egingo, ez orain eta ez epe laburrean. Enpleguarentzat ere ona izan da. Jakina, plana kendu ondoren galdu egin dira lanpostu batzuk». Enpresa txiki eta ertainak izan dira 2000E planaren onuradun nagusiak, obra txikiak sustatzen zirelako. Haiek gero eta gutxiago, eta handiak ere apenas.

Gaur egun, *Euskal Y*-a da martxan den herri lanik handiena. Araban, adjudikatuta daude zati guztiak, eta lanean ari dira. «Hartaz aparte, ez dago beste azpiegitura handirik martxan». Hautakundeak direla medio, datozen hilabeteetan ere ez dute kontratu

berririk espero. «Ikusi beharko da administrazioek zer gaitasun duten aurrekontuak adosteko, baina 2012ko hirugarren hiruhilekora arte ez dugu inbertsio handirik espero».

Gonzalezek dio *Euskal Y*-ak ere, sekulako dirutza behar duen arren, ez duela hainbesteko eragirik enpleguan. «Makinaria eta teknologia aldetik, baliabide handiak eskatzen ditu, eta horrek eragina du aurrekontuan, baina ez hainbeste langile kopuruan». *Euskal Y*-a «beharrezko azpiegitura bat» dela dio, lehiakortasuna hobetzen lagunduko duelako. Unecako kudeatzailearen arabera, ordea, diru guztia hartan gastatzea ez da egokia. «Ez da posible lanpostu gutxi sortzen duten azpiegituretan gastatzea aurrekontu guztia». Diruaren zati bat obra txiki eta ertainentzat gorde behar litzateke, haren ustez, horiek sortzen dutelako enplegu gehien.

Langile autonomoek ere nabaritu dute alderik. Emi Sanchez Euskal Autonomoen Elkarterko

## Hiru hitzarmenen epea pasatuta, laugarrena ia

→ Eraikuntzako lan hitzarmenak negozioazio fasean daude Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan, eta, oraingoz, ez dirudi epe laburrean itunik izango denik. Gipuzkoakoa 2009ra arte zegoen sinatuta. Iaz, hainbat greba egun antolatuta zituzten ELAk eta LABek, baina ez ziren ados jarri enpresaburuen elkartearekin. Hitzarmena ez betetzeak izan beharreko ondorioak itunean bertan bildu nahi dituzte langileen ordezkariak, eta hori da ezadostasunak sortzen dituzten gaietako bat. Araban eta Nafarroan 2010ean pasatu zen epea. Bizkaikoak da oraingoz indarrean dagoen bakarra, urte amaitu arte. CCOO eta UGTk sinatu zuten. Negoziazio mahaia sortu dute jada.

(AVA) kudeatzaileak dioenez, oparaldian lanei uko egiteko aukera ere izaten zuten. «Lehen, hainbeste lan zegoenez, askok baztertu egiten zituzten proiektu txikiak, etxeetakoak eta; orain, aukera guztiak onartzen dira». Irabazi marjinak jaitsi egin dituztela gaineratu du.

Kexu dira administrazio publikoen berankortasun tasaz. «Askok horregatik desagertu behar izan dute: ezin izan dietelako aurre egin administrazio publikoek ordaindu ez dizkieten fakturen BEZe». Aurtengo bigarren lauhilekoan, eraikuntzako 500 langile autonomok utzi dute negozioa. Bezero txikien artean arazo gutxiago sortzen ditu berankortasunak, fakturak ere txikiagoak izan ohi direlako; administrazio publikoenak, aldiz, milaka eurokoak izan daitezke. Eskaera bat egin du AVAK: ez izatea derrigorrezkoa BEZA dagokion hiruhilekoan ordaintzea, hau da, fakturak kobratu arte egoteko aukera izatea.

Sanchezek esanetan, finantza-bidea lortzeko arazoak ere ez dira konpondu eraikuntzako autonomoentzat. «Batzuek negozioa utzi behar izan dutenez, diru gutxiago eskatzen da orain, eta badi-rudi gehiago ematen dutela, baina ez da hala». Ohiko finantza iturriek eta guztiak itxi ostean, elkarte pribatuetara jo behar izaten dute, kontaktu duenez. «Soldatak, gizarte segurantz eta beste gastuak ordaintzeko mikro kredituak eskatu behar izan dituzte, eta interes tasa eta arrisku asko handiagoa hartu».